

# PROBA ESPEZIFIKOA

2023ko PROBA

**ENPRESAREN  
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





## **AZALPENAK**

Probaren iraupena: ordubete

Hona hemen azterketaren atalak eta atal bakoitzaren balioa:

**2 GALDERA TEORIKO, guztira 3 puntu balio dutenak.** Galdera bakoitzak gehienez 1,5 puntu balio du.

**2 PROBLEMA, guztira 4 puntu balio dutenak.** Atal honetan, ikasleak hirutik bi problema egin behar ditu. Problema bakoitzak gehienez 2 puntu balio du.

**TEST MODUKO 10 GALDERA,** hiru edo lau erantzun dituztenak aukeran eta bakarra da zuzena; guztira 3 puntu balio dute. Erantzun zuzen bakoitzak 0,3 puntu balio du; okerreko erantzun bakoitzagatik 0,1 puntu galduko da, eta ez erantzuteak ez du punturik emango. Atal honetako erantzunen batura ez da inoiz negatiboa izango.

### **GALDERA TEORIKOAK:**

- a) Azaldu zer den politika fiskal hedakorra.
- b) Sailkatu eta definitu enpresak jardueraren arabera, eta aipatu jarduera bakoitzaren adibideren bat.

### **PROBLEMAK**

1. "Uxue" jatetxeak eguneko menua 15 €-an saltzea erabaki du. Menu bakoitzerako lehengaien kostua 10 € da, eta, gainera, 1.000 € ordaindu behar dira lokalaren alokairuagatik.

Hau eskatzen da:

- a) Errentagarritasun-atalasea kalkulatzeko eta haren esanahia azaltzeko. (1 puntu)
- b) Irudikapen grafikoa. (0,5 puntu)
- c) Zer emaitza lortuko luke jatetxeak 400 menu saltzea lortuko balu? Arrazoitu erantzuna. (0,5 puntu)

2. Jone SA enpresak esnekiak merkaturatzen ditu, eta, normalean, 200 unitateko segurtasun-stocka izaten du MercaBilbaoko biltegian. Hornikuntza-eskaerak 10 egun behar izaten dituzte biltegiara iristeko, eta eskaera bakoitzaren bolumena 1.000 unitatekoa da. Jakinik hilero egiten diren salmenten batezbestekoa 500 unitatekoa dela eta hilabete batek 30 egun dituela.

Hau kalkulatu:

- a) Eskabide-puntua. (0,5 puntu)
- b) Stockaren batez besteko maila. (0,5 puntu)
- c) Errotazio-indizea. (0,5 puntu)
- d) Biltegiko mugimenduen irudikapen grafikoa. (0,5 puntu)



**ENPRESAREN EKONOMIA**

**ECONOMÍA DE LA  
EMPRESA**

3. Robotiker SA enpresak ondare-datu hauek aurkeztu ditu:

Kapital soziala.....	¿?????
Ordenagailuak .....	20.000 €
Eraikinak .....	200.000 €
Lehengaiak.....	10.000 €
Ogasun Publiko hartzekoduna .....	8.000 €
Kobratu gabeko fakturak.....	9.000 €
Armairuak .....	10.000 €
Eskudirua .....	1.000 €
Erreserbak .....	7.000 €
Dirua kontu korrontean .....	4.000 €
Bankuarekiko zorrak sei hilabeterako mailegu batengatik.....	40.000 €
Makineria.....	5.000 €
Ordaindu gabeko fakturak .....	20.000 €

Hau eskatzen da:

- Enpresaren egoera-balantzea egitea, ondare-masatan ordenatua. (1 puntu)
- Errotazio-funtsa kalkulatzeko eta haren emaitza grafiko baten bidez interpretatzeko. (Kalkulua: 0,5 puntu; interpretazioa: 0,5 puntu.)

**TEST MODUKO GALDERAK**

Erantzun zuzena markatzeko, inguratu letra zirkulu batez.

- Zerga bat erregresiboa denean:
  - Proporzioan, gehien irabazten duenak zerga gutxiago ordaintzen ditu.
  - Proporzioan, gehien irabazten duenak zerga gehiago ordaintzen ditu.
  - Proporzioan, gutxien irabazten duenak zerga gutxiago ordaintzen ditu.
  - Aurrekoetako bat ere ez.
  
- Bezeroak premia homogeneousak dituzten taldeetan bereizteari honela esaten zaio:
  - Merkatu-kuota.
  - Merkatu posizionamendua.
  - Segmentazioa.
  - Marketina.
  
- Estatuko aurrekontuetan aurreikusitako diru-sarrerak aurreikusitako diru-gastuak baino handiagoak badira:
  - Estatuak bere aurrekontu-defizita finantzatu behar du.



**ENPRESAREN EKONOMIA**

**ECONOMÍA DE LA  
EMPRESA**

- b) Estatuak inbertsioak egin ditzake sortutako superabitarekin.  
c) Estatuak sortutako superabita finantzatu behar du.  
d) Aurrekoetako bat ere ez da egokia.
4. Sozietate anonimoetan:  
a) Bazkideek PFEZa ordaintzen dute.  
b) Kapitala partaidetzatan banatuta dago.  
c) Bazkideek sozietatearen konpromisoen erantzun mugagabea dute.  
d) Eratzeko gutxieneko kapitala 60.000 € da.
5. Okupazio- edo enplegu-tasa hau da:  
a) Langabezian dagoen populazioaren eta populazio ez-aktiboaren arteko zatidura.  
b) Langabezian dagoen populazioaren eta populazio osoaren arteko zatidura.  
c) Populazio landunaren eta populazio aktibo osoaren arteko zatidura.  
d) Populazio aktibo osoaren eta langabezian dagoen populazioaren arteko zatidura.
6. Har dezagun taula hau:

Etxeak	Automobilak
0	20
1	16
2	12
3	8
4	4
5	0

- Zer aukera-kostu izango luke beste etxe-unitate gehigarri bat ekoizteak?
- a) 20 automobil-unitate.  
b) 5 etxe-unitate.  
c) Etxe-unitate bat.  
d) 4 automobil-unitate.
7. Faktore batek denbora-tarte batean duen produktibitatea honela adierazten da:  
a) Produktu baten fabrikazio-kostuaren eta salmenta-prezioaren arteko erlazioa.  
b) Produktu baten ekoizpen-bolumenaren eta bera ekoizteko erabilitako faktore-unitateen arteko erlazioa.  
c) Aldi horretan enpresa batek fabrikatutako produktu-unitateen kopurua.  
d) Kostu finkoaren eta kostu aldakorraren arteko erlazioa.
8. Mikroekonomiak hau aztertzen du:  
a) Eragile ekonomikoak.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2023ko MAIATZA

**ENPRESAREN EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2023

**ECONOMÍA DE LA  
EMPRESA**

- 
- b) Inflazioa.  
c) Kanbio-tasak.  
d) b + c.
9. Enpresa baten inbertsioa errentagarria izan dadin, haren BEGak (balio erantsi garbiak) honelakoa izan behar du:  
a) Zero baino handiagoa.  
b) Zero baino txikiagoa.  
c) Zero.  
d) BEGak ez du balio errentagarritasuna islatzeko.
10. Balantzean...  
a) Aktibo korronteak finantza-egitura adierazten du.  
b) Pasiboa kapital iraunkorren eta epe luzeko zorren batura da.  
c) Aktiboak enpresaren epe laburreko eta luzeko inbertsioak biltzen ditu.  
d) Pasibo korronteak enpresaren mozkinak islatzen ditu.

## AZALPENAK

Probaren iraupena: ordubete

Hona hemen azterketaren atalak eta atal bakoitzaren balioa:

**2 GALDERA TEORIKO, guztira 3 puntu balio dutenak.** Galdera bakoitzak gehienez 1,5 puntu balio du.

**2 PROBLEMA, guztira 4 puntu balio dutenak.** Atal honetan, ikasleak hirutik bi problema egin behar ditu. Problema bakoitzak gehienez 2 puntu balio du.

**TEST MODUKO 10 GALDERA,** hiru edo lau erantzun dituztenak aukeran eta bakarra da zuzena; guztira 3 puntu balio dute. Erantzun zuzen bakoitzak 0,3 puntu balio du; okerreko erantzun bakoitzagatik 0,1 puntu galduko da, eta ez erantzuteak ez du punturik emango. Atal honetako erantzunen batura ez da inoiz negatiboa izango.

### GALDERA TEORIKOAK:

a) Azaldu zer den politika fiskal hedakorra.

Politika fiskala sektore publikoaren esku-hartzea da (Estatua, autonomia-erkidegoak eta udalak).

Politika fiskal hedakorra zergak murriztean edo gastu publikoa handitzean datza, ondasun eta zerbitzuen eskari osoa edo agregatua suspertzeko.

Gastu publikoa ↑ Zergak ↓	Errenta erabilgarria ↑	Kontsumoa ↑ Inbertsioa ↑	Eskari Agregatua ↑	Produktzioa ↑ Enplegua ↑ Prezioak ↑
------------------------------	------------------------	-----------------------------	--------------------	---

b) Sailkatu eta definitu enpresak jardueraren arabera, eta aipatu jarduera bakoitzaren adibideren bat.

Sektore ekonomikoaren irizpidearen arabera, enpresak honela sailkatu daitezke:

- **Lehen sektoreko enpresak.** Baliabide naturalak lortzen jarduten dira. Adibidez, abeltzaintzan, nekazaritzan edo arrantzan diharduten enpresak.
- **Bigarren sektoreko enpresak.** Lehengaiak eta elikagaiak produktu landu bihurtzen dituzte. Industria-sektoreko adibide batzuk ehungintzako, metalurgiako edo altzarigintzako enpresak dira.
- **Hirugarren sektoreko enpresak.** Pertsona fisiko eta juridikoei zerbitzuak ematen dizkieten jardueretan aritzen direnak. Adibidez, higiezin agentziak, aholkularitza-enpresak edo irakaskuntza.

## PROBLEMAK

1. “Uxue” jatetxeak eguneko menua 15 €-an saltzea erabaki du. Menu bakoitzerako lehengaien kostua 10 € da, eta, gainera, 1.000 € ordaindu behar dira lokalaren alokairuagatik.

Hau eskatzen da:

- a) Errentagarritasun-atalasea kalkulatzeko eta haren esanahia azaltzeko. (1 puntu)

$$EA = KF/P - KA_u$$


$$EA = 1000/15 - 10 = 200 \text{ unitate}$$

Enpresak 200 menu saltzen baditu, jatetxeak ez du ez galerarik ez irabazirik.

Enpresak 200 menu baino gehiago saltzen baditu, jatetxeak irabaziak izango ditu.

Enpresak 200 menu baino gutxiago saltzen baditu, galerak izango ditu.

- b) Irudikapen grafikoa. (0,5 puntu)



- c) Zer emaitza lortuko luke jatetxeak 400 menu saltzea lortuko balu? Arrazoitu erantzuna. (0,5 puntu)

$$\text{Diru-sarrerak} = P \cdot Q = 15 \cdot 400 = 6000 \text{ €}$$

$$\text{Kostuak guztira} = KF + KA = 1000 + 10 \cdot 400 = 5.000 \text{ €}$$

$$\text{Emaitza} = 6000 - 5000 = 1000 \text{ € irabaziak}$$

2. Jone SA enpresak esnekiak merkaturatzen ditu, eta, normalean, 200 unitateko segurtasun-stocka izaten du MercaBilbaoko biltegian. Hornikuntza-eskaerek 10 egun behar izaten dituzte biltegiara iristeko, eta eskaera

**ENPRESAKO EKONOMIA / ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

bakoitzaren bolumena 1.000 unitatekoa da. Jakinik hilero egiten diren salmenten batezbestekoa 500 unitatekoa dela eta hilabete batek 30 egun dituela.

Hau kalkulatu:

a) Eskabide-puntua. (0,5 puntu)

$$P_{\text{eskabidea}} = SS + \text{hornikuntza-eparearen kontsumoa} = 200 + (500/30) \cdot 10 \text{ egun} = 366,66 \text{ unitate}$$


b) Stockaren batez besteko maila. (0,5 puntu)

$$\text{Stockaren batez besteko maila} = (SS + \text{stock maximoa})/2 = (200 + 1200)/2 = 700 \text{ unitate}$$

c) Errotazio-indizea. (0,5 puntu)

$$E_i = \text{Urteko kontsumoa} / \text{Stockaren batez besteko maila} = (500 \cdot 12) / 700 = 8,57$$

d) Biltegiko mugimenduen irudikapen grafikoa. (0,5 puntu)







**ENPRESAKO EKONOMIA / ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

3. Robotiker SA enpresak ondare-datu hauek aurkeztu ditu:

Kapital soziala.....	?????
Ordenagailuak .....	20.000 €
Eraikinak .....	200.000 €
Lehengaiak.....	10.000 €
Ogasun Publiko hartzekoduna .....	8.000 €
Kobratu gabeko fakturak.....	9.000 €
Armairuak .....	10.000 €
Eskudirua .....	1.000 €
Erreserbak .....	7.000 €
Dirua kontu korrontean .....	4.000 €
Bankuarekiko zorrak sei hilabeterako mailegu batengatik.....	40.000 €
Makineria.....	5.000 €
Ordaindu gabeko fakturak .....	20.000 €


Hau eskatzen da:

- Enpresaren egoera-balantzea egitea, ondare-masatan ordenatua. (1 puntu)
- Errotazio-funtsa kalkulatzeko eta haren emaitza grafiko baten bidez interpretatzea. (Kalkulua: 0,5 puntu; interpretazioa: 0,5 puntu.)



**ENPRESAKO EKONOMIA / ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

EGOERA-BALANTZEA			
AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA	235.000	ONDARE GARBIA	191.000
Ibilgetu ukiezina	0	Fondo propioak	191.000
		Kapital Soziala	184.000
		Erreserbak	7.000
Ibilgetu materiala	235.000		
Eraikuntzak	200.000		
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	20.000		
Altzariak	10.000		
Makineria	5.000		
		PASIBO EZ-KORRONTEA	40.000
Ondasun higiezinetakoko inbertsioak	0	Epe luzeko zorrak	0
Epe luzeko finantza-inbertsioak	0		
AKTIBO KORRONTEA	24.000	PASIBO KORRONTEA	28.000
Izakinak	5.000	Epe laburreko zorrak	
Lehengaiak	10.000	Kreditu-erakundeekiko epe laburreko zorrak	40.000
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako ko	9.000		
Bezeroak	9.000	Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako	28.000
Epe laburreko finantza-inbertsioak		Hornitzaileak	20.000
		Ogasun Publiko hartzekoduna	8.000
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	5.000		
Bankuak eta kreditu-erakundeak, ageriko k.k., euroak	4.000		
Kutxa, euroak	1.000		
AKTIBOA GUZTIRA	259.000	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	259.000



Maniobra Fondoa = Aktibo Korrontea - Pasibo Korrontea

Maniobra Fondoa = (Ondare Netoa + Pasibo Ez Korrontea) - Aktibo Ez Korrontea

**MANIOBRA FONDOA -4.000**

Maniobra fondoa: Epe luzerako baliabideak finantzatzen duten aktibo zirkulatzaileren

Maniobra fondoa: Epe luzerako baliabideak finantzatzen duten aktibo zirkulatzaileren zatia da. MF positiboa denean, bere zorrei aurregiteko gaitasuna aseguratuta dago

MF negatiboa denez, enpresak, aktibo korrontearekin, ezin die aurre egin pasibo korrontearen zor guztiei

### **TEST MODUKO GALDERAK**

Erantzun zuzena markatzeko, inguratu letra zirkulu batez.

1. Zerga bat erregresiboa denean:
  - a) **Proporzioan, gehien irabazten duenak zerga gutxiago ordaintzen ditu.**
  - b) Proporzioan, gehien irabazten duenak zerga gehiago ordaintzen ditu.
  - c) Proporzioan, gutxien irabazten duenak zerga gutxiago ordaintzen ditu.
  - d) Aurrekoetako bat ere ez.
  
2. Bezeroak premia homogeneousak dituzten taldetan bereizteari honela esaten zaio:
  - a) Merkatu-kuota.
  - b) Merkatu posizionamendua.
  - c) **Segmentazioa.**
  - d) Marketina.
  
3. Estatuko aurrekontuetan aurreikusitako diru-sarrerak aurreikusitako diru-gastuak baino handiagoak badira:
  - a) Estatuak bere aurrekontu-defizita finantzatu behar du.
  - b) **Estatuak inbertsioak egin ditzake sortutako superabitarekin.**
  - c) Estatuak sortutako superabita finantzatu behar du.
  - d) Aurrekoetako bat ere ez da egokia.
  
4. Sozietate anonimoetan:
  - a) Bazkideek PFEZa ordaintzen dute.
  - b) Kapitala partaidetzatan banatuta dago.
  - c) Bazkideek sozietatearen konpromisoen erantzun mugagabea dute.
  - d) **Eratzeko gutxieneko kapitala 60.000 € da.**
  
5. Okupazio- edo enplegu-tasa hau da:
  - a) Langabezian dagoen populazioaren eta populazio ez-aktiboaren arteko zatidura.
  - b) Langabezian dagoen populazioaren eta populazio osoaren arteko zatidura.
  - c) **Populazio landunaren eta populazio aktibo osoaren arteko zatidura.**
  - d) Populazio aktibo osoaren eta langabezian dagoen populazioaren arteko zatidura.
  
6. Har dezagun taula hau:

Etxeak	Automobilak
0	20
1	16
2	12

**ENPRESAKO EKONOMIA / ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

3	8
4	4
5	0

Zer aukera-kostu izango luke beste etxe-unitate gehigarri bat ekoizteak?

- a) 20 automobil-unitate.
- b) 5 etxe-unitate.
- c) Etxe-unitate bat.
- d) **4 automobil-unitate.**

7. Faktore batek denbora-tarte batean duen produktibitatea honela adierazten da:

- a) Produktu baten fabrikazio-kostuaren eta salmenta-prezioaren arteko erlazioa.
- b) **Produktu baten ekoizpen-bolumenaren eta bera ekoizteko erabilitako faktore-unitateen arteko erlazioa.**
- c) Aldi horretan enpresa batek fabrikatutako produktu-unitateen kopurua.
- d) Kostu finkoaren eta kostu aldakorraren arteko erlazioa.

8. Mikroekonomiak hau aztertzen du:

- a) **Eragile ekonomikoak.**
- b) Inflazioa.
- c) Kanbio-tasak.
- d) b + c.

9. Enpresa baten inbertsioa errentagarria izan dadin, haren BEGak (balio erantsi garbiak) honelakoa izan behar du:

- a) **Zero baino handiagoa.**
- b) Zero baino txikiagoa.
- c) Zero.
- d) BEGak ez du balio errentagarritasuna islatzeko.

10. Balantzean...

- a) Aktibo korronteak finantza-egitura adierazten du.
- b) Pasiboa kapital iraunkorren eta epe luzeko zorren batura da.
- c) **Aktiboak enpresaren epe laburreko eta luzeko inbertsioak biltzen ditu.**
- d) Pasibo korronteak enpresaren mozkinak islatzen ditu.